

Itsasoko altxorra

Arraina jatea osasunarentzat ona dela edonork daki. Arraina gantz-azidotan oso aberatsa da eta gaixotasun kardiobaskularrak saihesten laguntzen duela esan ohi da. Alabaina, neurrian datza gakoa: arraina astean bost edo sei aldiz jateak ez du aparteko mesederik egiten. Harvard-eko Medikuntza Eskolako ikerlariek 1986 eta 1992 bitartean egindako azterketak baieztatu duenez, arraina astean birritan jatea nahikoa da gantz-azidoren onurez baliatu ahal

Arraina astean birritan jatea nahikoa da gantz-azidoren onurez baliatu ahal izateko. Kopuru horretatik aurrera ordea, gantz-azidoak pilatzea baino ez da lortuko.



izateko. Kopuru horretatik aurrera ordea, gantz-azidoak pilatzea baino ez da lortuko.

Finlandiako ikerlariek ere arrainaren azterketari ekin diote. Arraina izan ere, finlandiarren dietako osagai nagusia da, baina gaixotasun kardiobaskularrak noiz-nahi ematen direla behatu da. Ez al du Finlandiako arrainak gantz-azidorik?

Kuopioko Unibertsitateko ikerlariek diotenez, Finlandian kontsumitu ohi duten arrainak merkurio-kantitate handiak ditu eta horrexek baliogabetzen ditu gantz-azidoren onurak. Poluitzailea izanik, merkurioak gaixotasun kardiobaskularren arriskua areagotu egiten du.

Estresaren hormona

Orain arte uste hutsa bazen ere, zenbait gaixotasun fisikoen eta estresaren artean lotura zuzena dagoela baieztatu dute EEBBetako Bethesda Ospitaleko ikerlariek. Zehatzago esanda, estres-egoerek hipotalamoko CHR hormona neurririk gabe askarazten dutela ondorioztatu du Ospitaleko ikerlari-taldeak, zenbait gaixotasun fisikoen eta psikikoen arteko loturria zehaztuz. Lanerako hipotesi hutsa zena beraz, baieztatu egin da: estresa gaixotasun askoren jatorria da.



Ikerlarien esanetan, estres-egoeratan hipotalamoko CHR hormona askatzen du eta immunologi sistemaren oinarriko iharduerak aldarazten ditu. Hori horrela izanik, zenbait inpultso ez-ohizko agindu ditza ke, hala nola, zenbait zelulen ugalketa. Minbiziaren jatorriari buruzko argibidea izan zitekeen azalpen hori, baina ikerlariek diotenez, asko falta da ondorio hori ontzat emateko. Alabaina, ikerketa horiek hurrengo urratsak norantz eman behar diren argitu dute eta ia zalantzarik gabe esan genezake CHR hormona hurrengo urteotarako erronka izango dela.

Minbizia ere, geneetan idatzita

Britainia Haundiko Keele Unibertsitateko ikerlariek diotenez, obarioko minbiziaren jatorria ge-

Britainia Haundiko Keele Unibertsitateko ikerlariek diotenez, obarioko minbiziaren jatorria geneetan egon liteke.

neetan egon liteke. Azterketa horretan diharduten espezialistek uste dutenez, obarioko minbizi agertzen den kasuen %10 aurrez tratatzerik egongo da hipotesi hori baieztatzea lortuz gero. Keele Unibertsitatea elkarlanean ari da Britainia Haundiko beste zenbait Ikerketa Zentruekin eta oraingoz datu fidagarriak lortu ez badute ere, emakumearen kromosoma-egitura aztertzen dihardute. Arrisku-taldeak definitu eta gero, azterketa gehiago egin beharko da, gaixotasunaren jatorria ezezik, obarioko minbiziaren emakumeen egoera psikologikoa ere hobeto ulertu ahal izateko.